



## IRISGARRITASUN UNIBERTSALA 2023: IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ESTRATEGIA EZARTZEKO TOKI-ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

AGINDU ARAUTZAILEARI ETA DEIALDIARI LAGUNTZEKO DOKUMENTUA: TRAMITAZIORAKO JARRAIBIDEAK, EPEEN EGUTEGIA, ETA IRISGARRITASUNAREN ARLOKO ERREFERENTZIAZKO AGIRIAK.

2023ko azaroaren 20an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian **Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko azaroaren 14ko AGINDUA**. Horren bidez, toki-erakundeei Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategia Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integralen bidez ezartzeko eta bertan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko dirulaguntzak arautu eta horietarako deialdia egin zen.

Deialdian interesa duten entitate guztiei informazioa emateko, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza honek agiri hau prestatu du, edukiaren laburpenarekin eta dirulaguntzaren tramitazioa errazteko ohar argigarriekin.

Ohartarazten da dokumentu honetan Aginduaren edukia laburtu dela tramitazioari laguntzeko tresna izan dadin. Beraz, baldintzak eta informazio osoa arau erregulatzaillean kontsultatu behar dira. Agiri honek ez du balio juridikorik, eta bi agirien artean desadostasunik izanez gero, dirulaguntza hauek arautu eta dei egiten dituen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren 2023ko azaroaren 14ko Aginduaren testuan zehaztutakoa nagusituko da.

### DEIALDIAREN DATU OROKORRAK

- **Dirulaguntza mota:** norgehiagoka.
- **Balorazioa:** Balorazio Epaimahaia.
- **Organo kudeatzailea:** Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza.
- **Ebazteko organoa:** Etxebizitza Sailburuordetza.
- **Ebazpena:** bakarra, aurkeztu diren eskaera guztiekin.
- **Ebazpena jakinarazteko epea:** sei hilabete.
- **Ebazpena argitaratzea:** EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa.
- **Isiltasuna:** ezestekoa.
- **Tramitazioa:** elektronikoa.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA

Diruz lagundutako planak egin eta idazteko, [Euskadiko PIAUaren gida](#) kontsultatu ahal izango da, ISEK-Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak argitaratutakoa, Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren garapen gisa.



## DEIALDIAREN KUDEAKETA

### DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUKETAK (2. artikulua)

<b>1. LERROA</b>  <b>IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALAK PRESTATU ETA IDAZTEA: PIAU</b>	<b>1.1 JARDUKETA MOTAK: PIAU OSOA IDAZTEA</b>	<b>PIAU-AREN GUTXIENENKO BALDINTZAK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Gutxienerako azterketa-eremua: inguru fisikoa, zerbitzu publikoak, informazio- eta komunikazio-bideak eta/edo erakunde sustatzailearen arloetan aurreikusitakoak.</li> <li>– Gutxienerako edukia (<b>*Aginduaren I. Eranskinaren arabera</b>): Proposamen estrategikoa. Abiapuntuko egoeraren azterketa eta diagnostikoa. Jarduketa plana. Kudeaketa plana. Komunikazio plana.</li> </ul>
	<b>1.2 JARDUKETA MOTAK: INDARREAN DAGOEN IRISGARRITASUN-PLANA PIAU-AN EGUNERATZEA</b>  *4 urte baino gutxiagoko antzintasuna duten planen eguneratzeek bakarrik jaso ahal izango dute dirulaguntza (2020koak eta ondorengoak).	<b>PIAU EGUNERATZEKO GUTXIENENKO BALDINTZAK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Gutxienerako edukia (<b>*Aginduaren I. Eranskinaren arabera</b>): Proposamen estrategikoa. Abiapuntuko egoeraren azterketa eta diagnostikoa. Jarduketa plana. Kudeaketa plana. Komunikazio plana.</li> <li>– Eguneratu beharreko egungo planaren esparruan lortutako emaitzen ebaluazioa.</li> </ul>
<b>2. LERROA</b>  <b>IRISGARRITASUNAREN ARLOKO JARDUKETAK EGITEA</b>  (Hiri-inguruneetan zein eraikinetan)	<b>2.1 JARDUKETA MOTAK: OBRAK HONAKO HAUEK INSTALATZEKO:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Igogailuak.</b></li> <li>• <b>Plataforma jasotzaile bertikalak.</b></li> <li>• <b>Higiene-zerbitzu egokituak.</b></li> <li>• <b>Aldagela egokituak.</b></li> </ul>
	<b>2.2 JARDUKETA MOTAK: PERTSONA GUZTIENTZAKO SEINALEZTAPENA:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Orientazio- eta mugikortasun-baliabideak.</b></li> <li>• <b>Sinbolo eta piktograma unibertsalak.</b></li> <li>• <b>Informazioa eta orientazioa hobetzeko sistemak eta teknologiak.</b></li> </ul>
<b>2. LERROAN DIRUZ LAGUNDUTAKO IRISGARRITASUN-JARDUKETA BATEN GUTXIENENKO BALDINTZAK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Diruz lagundutako jarduketek indarrean dagoen irisgarritasun-planean aurreikusita egon behar dute, eta planaren urteaz gain, non dauden ere justifikatu behar da.</li> <li>– Egungo irisgarritasun-plana 2019koa edo lehenagokoa bada, PIAU bat egin beharko da haren ordean, eta obraren edo seinaleztapenaren justifikazioan aurkeztu; aldi berean, PIAUa idazteko finantzaketa eskatu ahal izango da 1. lerroaren bidez (eskaera independentea egin behar da).</li> <li>– Diruz lagundutako jarduketek araudiak ezarritako gutxienerako irisgarritasun-baldintzen araberrako ibilbide irisgarriak sortuko dituzte.</li> <li>– Egin beharreko jarduketak interes kulturalako edo beste edozein babes araubideren menpeko hiri inguruneetan edo higiezinetan eragina badu, obrak organo eskudunak baimendu beharko ditu.</li> </ul>		

### ERAKUNDE ONURADUNAK (3. artikulua)

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak:

- **Udalak**
- **Mankomunitateak**
- **Udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak**
- **Kuadrillak**

AURREKONTU BABESGARRIA (4. artikulua)

Laguntzen eskabidean ageri dena, diruz laguntzeko moduko jarduketak egiteko kalkulaturako aurrekontuarekin bat datorrena.

Ez dira kontuan hartzen irisgarritasun unibertsalaren baldintzetara egokitze zuzeneko loturarik ez duten jarduketak.

Zergak eta tasak kenduta.

Eskaera bakoitzaren irisgarritasunaren aurrekontu babesgarriak zenbateko hauek edo handiagoak izan beharko ditu:

1. LERROA	10.000,00.-€
2. LERROA	50.000,00.-€

DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENENKO ZENBATEKOA (4. artikulua)

Entitate bakoitzari 500.000,00 euro emango zaizkio gehienez, bi lerroak eta onartutako eskaera guztiak batuta (8. artikulua).

Jarduketa finantzatzeko gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, irisgarritasunaren babespeko aurrekontuari ehuneko hauetako handiena aplikatuko zaio:

<b>1. LERROA</b>	Erakunde eskatzaile bakoitzari <b>gehienez ere 50.000 €</b>	IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALAK: PIAU (eta aurreikusitako kasuetan indarrean dauden planen eguneratzeak)		<b>% 85</b>
		OBRAK HIRI INGURUNEAN, HONAKO HAUEK INSTALATZEKO:		<b>% 70</b>
<b>2. LERROA</b>	Erakunde eskatzaile bakoitzari <b>gehienez ere 500.000 €</b>	Kultura-ondasun deklaratu diren titulartasun eta erabilera publikoko eraikinetako jarduketak.	Babes berezia	
			Babes ertaina	<b>% 80</b>
			Oinarrizko babesa	<b>% 75</b>
		Jarduketak monumentu-multzo deklaraturako ingurune babestuaren barneko hiri inguruneetan edo titulartasun eta erabilera publikoko eraikinetan.	Babes berezia	<b>% 85</b>
			Babes ertaina	<b>% 80</b>
			Oinarrizko babesa	<b>% 75</b>
		Area degradatuetan (AD) edo birgaitze integratuan (BIA) dauden jarduketak.		<b>% 75</b>
2.000 biztanletik beherako udalerrietan egiten diren jarduketak.		<b>% 75</b>		
Aurrekoez bestelako dirulaguntza jaso dezaketen gainerako jarduketak.		<b>% 50</b>		



## ESKAERAK AURKEZTEA ETA AKATSAK ZUZENTZEA (5. eta 7. artikulua)

- **Epea:** hilabete, deialdia EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita.
- **Non:** egoitza elektronikoan [www.euskadi.eus/zerbitzuak/0088510](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0088510)
- **Eskaeraren eta kontsulten ondorengo izapide guztiak:** espediente elektronikoan, Egoitza elektronikoan/Nire karpeta <https://euskadi.eus>.
- **Eskaera euskaraz edo gaztelaniaz** egin daiteke, eta hori izango da espedientearen prozedura osoan erabiliko den hizkuntza.
- **Eskabidean akatsen bat ikusiz gero**, egoitza elektronikoan zuzentzeko errekerimendua jakinaraziko da eta 10 eguneko epea emango da. Horrela egiten ez bada, edo aurkeztutako dokumentazioa II. eta III. Eranskinetan adierazitakoarekin bat ez badator, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.
- **Argibideak eskatzeko / informazioa zabaltzeko eskaera:** eskaera tramitera onartu ondoren, egokitzen jotzen den informazioa eskatu ahal izango da aurkeztutako proposamena behar bezala baloratzeko, eta 10 eguneko epea emango da; aurkezten ez bada, eskatutako informazioa kontuan hartu gabe baloratuko da.

## ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK (8. artikulua)

Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta epearen barruan aurkezten diren eskaera guztien gehieneko zenbatekoak zehaztu ondoren, aurrekontuetan dagoen dirua gaindituz gero, lehentasun hurrenkera honi jarraituko zaio:

**Lehen:** 1. Lerroa - Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralak.

**Bigarrena:** 2. Lerroa - Irisgarritasun jarduketak egitea, honako ordena honetan:

1. Hiri-ingurunean igogailuak instalatzeko obrak.
2. Kultura-intereseko jotako titulartasuneko eta erabilera publikoko eraikinen edo monumentu-multzo deklaraturako ingurune babestuen barruan daudenen irisgarritasuna hobetzeko jarduketak.
3. Jarduketak 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, edo area degradatuetan (AD) edo birgaitze integratuan (BIA) dauden jarduketak.
4. Dirulaguntzaren xede diren gainerako jarduketak.

Eskura dagoen zuzkiduraren zenbatekoa 1. lerroari dagozkion eskaera guztiei erantzuteko iristen ez bada, zuzkidura proportzionalki hainbanatuko da babespeko aurrekontuaren arabera, eta 2. lerroari dagozkion laguntza-eskaerak ukatzea erabakiko da, beharrezkoa bada.

Eskura dagoen zuzkiduraren zenbatekoa 2. lerroan aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko iristen ez bada, azpitalde bakoitzean aurkeztutako eskaerak hartuko dira kontuan, adierazitako ordenari jarraituz. Behar adina krediturik ez dagoen azpitaldean aurkeztutako eskaerak hainbanatu egingo dira, eta laguntza-eskabideak ukatu ahal izango dira gainerako krediturik ez dagoen taldeetan.

ESKAERA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (6. artikulua)

- Diruz lagundu ahal den jarduketa bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko da, dagokion lerroan.
- **Eskabide-orriaren edukia II. ERANSKINEAN** zehazten da.
- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko **dokumentazioa III. ERANSKINEAN** zehazten da, eta honela laburbiltzen da:

<p><b><u>1. LERROA</u></b></p> <p>IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALAK: PIAU</p> <p>(eta planak eguneratzea aurreikusitako kasuetarako)</p>	<p>a) Indarrean dagoen irisgarritasun-planaren txosten teknikoa, informazio hau jasotzen duena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Plana idatzi eta onartu zen urtea.</li> <li>• Planaren indarraldia.</li> <li>• Planean proposatutako jarduketa guztiak zenbateraino betetzen diren.</li> </ul> <p>b) Jarduteko proposamena, dokumentu bakar batean, honako atal hauek biltzen dituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• PIAUaren helburuak eta irismena justifikatzen dituen memoria deskribatzailea.</li> <li>• PIAUaren erredakzioaren azterketa ekonomikoa.</li> </ul> <p>c) Erakunde eskatzailearen organoaren erabakia, dirulaguntzaren xede den jarduketa egitea onartzen duena.</p>
<p><b><u>2. LERROA</u></b></p> <p>IRISGARRITASUNAREN ARLOKO JARDUKETAK EGITEA</p> <p>Hiri-inguruneetan zein eraikinetan</p>	<p>a) Indarrean dagoen irisgarritasun-planaren txosten teknikoa, informazio hau jasotzen duena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Plana idatzi eta onartu zen urtea.</li> <li>• Planaren indarraldia.</li> <li>• Planean proposatutako jarduketa guztiak zenbateraino betetzen diren.</li> </ul> <p>b) Indarrean dagoen irisgarritasun-plana 2020. urtea baino lehenagokoa bada, memoria deskribatzaile bat aurkeztu behar da, idatzi beharreko PIAUaren eguneratzearen helburuak eta irismena justifikatzeko.</p> <p>c) Indarrean dagoen eta onartutako irisgarritasun-planaren zatiaren kopia, dirulaguntzaren eskaeraren xede den jarduketa jasotzen duena (aurkeztutako planaren zatiari dagokion bolumena, fitxa eta orria adierazi behar dira, eta argi eta garbi adierazi behar dira jarduketaren bidez gauzatu nahi den planean proposatutako jarduketak).</p> <p>d) Erakunde eskatzailearen organoaren erabakia, dirulaguntzaren xede den jarduketa egitea onartzen duena.</p> <p>e) Jarduteko proposamena. Hiri-igogailuen eta hiri-plataforma jasotzaileen kasuan, jarduteko proposamena oinarrizko proiektua izango da; gainerako kasuetan, "Jarduteko proposamena" izeneko dokumentu bakarra aurkeztuko da, ondoren aipatzen diren atalak izango dituen (<b>*Ikusi xehetasunak III. Eranskinean</b>):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak deskribatzen eta justifikatzen dituen memoria.</li> <li>• Proposamenaren azterketa ekonomikoa.</li> <li>• Jarduteko proposamenaren planoak.</li> </ul> <p>f) Laguntzaren xede den jarduketa birgaitze integratuan (BIA) edo area degradatuan (AD) badago: jarduketa kokatzen den plano, aipatutako arearen mugarekin alderatuta.</p> <p>g) Ingurune / eraikin katalogatuetan edo babestuetan egiten diren jarduketaren kasuan: eraikinari dagokion babes-erregimenpean dagoela ziurtatzeko beharrezko dokumentazioa, eta, horrekin batera, organo eskudunak proposatutako obrak gauzatzeko aldeko txostena edo baimena.</p> <p>h) Erakunde eskatzaileak 2.000 biztanle baino gutxiago baditu, udal-eroldaren ziurtagiria, eskaera-epearen barruan eguneratua.</p> <p>i) Hala badagokio, eta agindu honen 2. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, dokumentu hauetakoren bat:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 1., 2. eta 3. mailako obrak egiteko proposamena.</li> <li>• Erakunde eskatzailearen erabakia, aginduaren 9. artikuluan aurreikusitako epea baino lehen obra horiek egiteko konpromisoa hartzen duena.</li> </ul>



## JARDUKETEN DENBORA-EREMUA (10. artikulua)

Diruz lagundutako jarduketak burutzeko epeak:

<b><u>1. LERROA</u></b>	HASIAK deialdia argitaratzen denetik *2024/01/01etik aurrera fakturatuak	2025/10/1 baino lehen AMAITUTA
<b><u>2. LERROA</u></b>	HASIAK deialdia argitaratzen denetik *2024/01/01etik aurrera fakturatuak	2026/10/1 baino lehen AMAITUTA
<p><b>*EPEA LUZATZEA</b></p> <p>Ezarritako epean jarduketa amaitzea eragozten duen erakunde onuradunaren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiak daudenean, epearen LUZAPEN BAKARRA eskatu ahal izango da MODU JUSTIFIKATUAN.</p> <p>Onetsi egin beharko da eta gehienez ere URTE BATEKOA izan daiteke.</p> <p>Eskaeran baldintza hauek betetzen badira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduketa amaitzeko gehienezko epea amaitu baino lehen eskatu behar da.</li> <li>- Jarduketa hasi dela justifikatzea.</li> </ul>		

## JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINTZEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK (12. artikulua)

Onarturiko eskabideetan, emandako dirulaguntza hainbat ordainarazpenen bidez ordainduko da eskatutako frogagiriak aurkeztu ondoren, prozedura honi jarraikiz:

### ORDAINTZEKO MODUAK:

<b><u>1. LERROA</u></b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2024an hasi izanaren justifikazioa &gt; Ordainketa (% 20)</li> <li>- Amaitu izanaren justifikazioa &gt; Gainerako ordainketa</li> </ul> <p>* bi justifikazioak nahitaezkoak dira.</p>
<b><u>2. LERROA</u></b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2024an hasi izanaren justifikazioa &gt; Ordainketa (% 20)</li> <li>- 2025eko gastu partzialaren justifikazioa &gt; Ordainketa</li> <li>- 2026ko gastu partzialaren justifikazioa &gt; Ordainketa</li> <li>- Amaitu izanaren justifikazioa &gt; Gainerako ordainketa</li> </ul> <p>* nahitaezkoak dira hasi eta amaitu izanaren justifikazioak, bai eta, gutxienez, justifikazio partzial bat ere, urte bakoitzean ordainketa bat ekarriko duena.</p>



## JUSTIFIKAZIOAREN LABURPEN-TAULAK: DOKUMENTAZIOA ETA ENTREGA-EPEAK

## 1. LERROKO DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

FASEA	AGIRIAK	EPEA
<b>DIRULAGUNTZA ONARTZEA</b>	<p>Onarpen adierazpena.</p> <p>*Onartzeko edo uko egiteko adierazpena espresuki idatziz aurkeztu ezean, onartutzat joko da.</p>	<p>Aldeko ebazpena jakinarazi eta hurrengo 15 egunetan ENTREGATU</p>
<b>JARDUKETAREN HASIERAREN JUSTIFIKAZIOA</b>	<p>Hauetako bat: lizitazioaren argitalpena / esleipenaren ebazpena / sinatutako kontratua.</p>	<p>2024/11/15 BAINO LEHEN ENTREGATU</p>
<b>JARDUKETA AMAITU IZANAREN JUSTIFIKAZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>a) PIAUaren ale amaitua, dokumentu guztiak.</li> <li>b) Dirulaguntzaren publizitatea egin izanaren egiaztagiria, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.</li> <li>c) Kontratua erredaktatzeko formalizatutako kontratuari dagozkion fakturak eta horien ordainagiriak.</li> <li>d) Erakunde onuradunaren ziurtagiria, zeinak honako hauek jasoko dituen: lerro honetan emandako dirulaguntzaren xedea eta helburua bete direla; horretarako jarritako zenbatekoak; eta jarduketaren kontratazioa sektore publikoan kontratatzeke aplikatu beharreko araudiaren arabera egin dela.</li> <li>e) Xede bererako beste dirulaguntza batzuei buruzko erakunde onuradunaren ziurtagiria, eskatutako eta emandako zenbatekoak zehaztuta eta BEZa finantzatu den adierazita.</li> </ul>	<p>2025/10/31 BAINO LEHEN ENTREGATU</p>

2. LERROKO DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

FASEA	AGIRIAK	EPEA
<b>DIRULAGUNTZA ONARTZEA</b>	Onarpen adierazpena. *Onartzeko edo uko egiteko adierazpena espresuki idatziz aurkeztu ezean, onartutzat joko da.	<b>Aldeko ebazpena jakinarazi eta hurrengo 15 egunetan ENTREGATU</b>
<b>JARDUKETA HASI IZANAREN JUSTIFIKAZIOA</b>	Hauetako bat: lizitazioaren argitalpena / esleipenaren ebazpena / sinatutako kontratuaren sinadura.	<b>2024/11/15 BAINO LEHEN ENTREGATU</b>
<b>JUSTIFIKAZIO PARTZIALA 2025</b>	a) Ordura arte egindako obra-ziurtagiriak, kapituluaren eta partiden laburpenarekin eta banakapenarekin. b) Ziurtagiriei dagozkien fakturak eta ordainagiriak.	<b>2025/10/31 BAINO LEHEN ENTREGATU</b>
<b>JUSTIFIKAZIO PARTZIALA 2026</b>	a) Ordura arte egindako obraren ziurtagiriak, kapituluaren eta partiden laburpenarekin eta banakapenarekin. b) Ziurtagiriei dagozkien fakturak eta ordainagiriak.	<b>2026/07/31 BAINO LEHEN ENTREGATU</b>
<b>JARDUKETA AMAITU IZANAREN JUSTIFIKAZIOA</b>	a) Obra-bukaerako zertifikazioa, laburpenarekin eta kapituluaren eta partiden banakapenarekin. b) Gastuari dagozkion fakturak eta ordainagiriak. c) Obra-hasierako akta (zuinketa-akta). d) Obra-bukaerako akta (harrera-akta). e) Egindako obraren eta ingurune hurbilaren argazki-dokumentazioa. f) Eraikuntzaren Antolamenduaren buruzko Legearekin bat etorritik, teknikari eskudunaren ziurtagiria, gauzatutako jarduketak irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzen duela ziurtatzen duena (20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak). g) Gainera, eraikinetan egindako jarduketaren kasuan, Eraikuntzaren Kode Teknikoa-DB SUAn ezarritako oinarritzko eskakizunak betetzen direla egiaztatuko da, eta, hiri-inguruneen jarduketaren kasuan, uztailaren 23ko TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatueta iristeko eta horiek erabiltzeko oinarritzko irisgarritasun-baldintzei eta diskriminaziorik ezari buruzko dokumentu teknikoak garatzen duena. h) Erakunde onuradunaren ziurtagiria, honako hauek jasotzen dituenak: lerro honetan emandako dirulaguntzaren xedea eta helburua bete direla; horretarako bideratutako zenbatekoak; eta jarduketa sektore publikoan kontratazioari aplikatu beharreko araudiaren arabera kontratatu dela. i) Erakunde onuradunaren ziurtagiria, helburu bererako emandako beste dirulaguntza batzuei buruzkoa, eskatutako eta emandako zenbatekoak zehaztuta, eta BEZa finantzatu den adierazita. j) Obra-bukaerako ziurtagiria, gainbegiratua edo bisatua jarduketa mota dela eta nahitaezkoa denean, bai eta, beti, diruz lagundutako igogailuen eta plataformen kasuetan ere. k) Igogailuen eta plataformen kasuan: instalazioa martxan jarri izanaren ziurtagiria, autonomia-erkidegoko organo eskudunak baimendua. l) Dagokion publikitate 11. artikuluan xedatutakoaren arabera egin izanaren egiaztapenak. m) Idatzitako PIAUaren alea (PIAUaren idazketa deialdi honetako 1. Lerroaren bidez diruz lagundu bada, nahikoa izango da dirulaguntza horren espediente-zenbakia identifikatzen duen dokumentu bat aurkeztea).	<b>2026/10/31 BAINO LEHEN ENTREGATU</b>